



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2018ko MARTXOAREN 5ean EGINIKO OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2018ko martxoaren 5ean, Asteasuko Udaletxeko Idazkaritzako bilera gelan, arratsaldeko 20.03 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)
Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDA:

1. Aurreko Udalbatzarraren akta onartzea:

- **2017.12.19ko Udalbatzarraren akta.**

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2017.urtekoak (317-337).**
- **2018.urtekoak (1-46)**

3. 2018ko Udal aurrekontuak: hasierako onspena.

4. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA.

1. Aurreko Udalbatzarraren akta onartzea:

- **2017.12.19ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu akta onartu du.

BIGARREN PUNTUA.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2017.urtekoak (317-337).
- 2018.urtekoak (1-46)

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

2018ko Udal aurrekontuak: hasierako onespena.

2018/02/13an aurkeztutako idatziaren bidez (sarrera zenbakia: 81) Asteasu Batuz Udal taldeak 2018ko udal aurrekontuetarako proposamenak aurkeztu ditu.

2018/02/21ean aurkeztutako idatziaren bidez (sarrera zenbakia: 97) EAJ-PNV Udal taldeak 2018ko udal aurrekontuetarako proposamenak aurkeztu ditu.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpen hau eman du:

“Lehena. 2018ko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, eta Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda hasierako izaeraz onartzea, zuzenketa hauekin:

1. Herriko plazaren peatonalizazioa (iturriaren birgaitzearekin batera): 60.000€.
2. Errekabailarako sahiesbidea: 15.000€
3. Udal eraikuntzetako giltzen sistema: 7.000€.
4. Plataforma APP: 4.575€.
5. EJKo biodibertsitate diru-laguntza: 3.700€.
6. GLLko diru-laguntzak: 7.756€.
7. Pello Errota 2019: 8.920€.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

8. *Guraso euskara formakuntza: 1.000€ kentzea (kulturalatik doa).*
9. *Senidetze-anaieratze: 3.500€.*

Bigarrena. Iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian, eta iragarki taulan, jendaurrera azaltzeko hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko”.

Alkate andreak hitza hartu du: Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak ez zuen zuzenketa hau aztertu:

1. *Herribideetako mantentze lanak: 8.841€.*

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: EAJ-PNV Udal taldeak aldeko bozka emango diela udal aurrekontuei; aurreko ogasuneko batzordean bere udal taldearen jarrera adierazi zuten, hots, ados daudela egin diren proposamenekin; zehazki, herriko plazaren berrikuntza lanak helburu estrategikoa dela herriarentzat.

Bitarteko Idazkari Kontuhartzaileak hitza hartu du: espedientean egin dituen txostenen berri eman du; egonkortasunaren helburua eta zor publikoaren erregelak betetzen dira; gastu araua, berriz, ez da betetzen. Bere ustez, 2017 urteko aurrekontuaren likidazio estimazioaren arabera, exekuzio maila baxua izan da, eta hortik dator eman den egoera. Bere ondorioz, eta Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelen arabera, udalak plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko du; plan hori onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2018ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Segidan, 2018ko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, eta Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda hasierako izaeraz onartzeko proposamena, zuzenketa hauekin, batera aztertu da:

1. Herriko plazaren peatonalizazioa (iturriaren birgaitzearekin batera): 60.000€.
2. Errekabailarako sahiesbidea: 15.000€.
3. Udal eraikuntzetako giltzen sistema: 7.000€.
4. Plataforma APP: 4.575€.
5. EJko biodibertsitate diru-laguntza: 3.700€.
6. GLLko diru-laguntzak: 7.756€.

7. Pello Errota 2019: 8.920€.
8. Guraso euskara formakuntza: 1.000€ kentzea (kulturalatik doa).
9. Senidetze-anaieratze: 3.500€.
10. Herribideetako mantentze lanak: 8.841€.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

ERABAKI DU

Lehena. 2018ko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, eta Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda hasierako izaeraz onartzea, zuzenketa hauekin:

1. Herriko plazaren peatonalizazioa (iturriaren birgaitzearekin batera): 60.000€.
2. Errekabailarako sahiesbidea: 15.000€
3. Udal eraikuntzetako giltzen sistema: 7.000€.
4. Plataforma APP: 4.575€.
5. EJko biodibertsitate diru-laguntza: 3.700€.
6. GLLko diru-laguntzak: 7.756€.
7. Pello Errota 2019: 8.920€.
8. Guraso euskara formakuntza: 1.000€ kentzea (kulturalatik doa).
9. Senidetze-anaieratze: 3.500€.
10. Herribideetako mantentze lanak: 8.841€.

Bigarrena. Iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian, eta iragarki taulan, jendaurrera azaltzeko hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsitzat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

LAUGARREN PUNTUA



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- **Adierazpena:**

Alkate andreak EUDELEk aurkeztutako adierazpena onartzeko proposamena egin du; aurretik, adierazpen hori EAJ/PNV udal taldeari posta elektronikoz helarazi dio.

A.F.A.ren 91.4 artikularekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Une honetan, Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB) jauna bertaratu da.

2018ko MARTXOAREN 8rako ADIERAZPENA

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, "Emakumeok planto. Nosotras paramos" leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztutako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko

ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zereginenez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonen denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduerara sozial egiteko, emakumeek jarduerara horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikitzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizarte antolatze modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrotatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ, _____(e)ko Udalak hitza ematen du

- Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatze.
- Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.
- Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.
- Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizarte lortzeko kultura-aldaketak susta daitezen.

Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria, Usandizaga)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udaltzako, bertaratutako kideen aho batez,



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

- Adierazpena:

Alkate andreak ASTEASU BATUZek aurkeztutako adierazpena onartzeko proposamena egin du; adierazpen hori ez dio aurretik EAJ/PNV udal taldeari helarazi.

A.F.A.ren 91.4 artikuluekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, Uribe-Etxebarria, Usandizaga)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO GREBA

- laz, 70 herrialde baino gehiagotan, emakumeek nazioarteko emakumeen grebarako deialdia zabaldu zuten, emakumeen kontra indarkeria eta desberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean.
- Aurtengo martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak, sindikatuek (ela, lab, esk, cnt, esteilas, ccoo, ugt) eta hainbat eragile politikok bat egin dugu EMAKUMEOK PLANTO - NOSOTRAS PARAMOS aldarriarekin, emakumeak menpean hartzen eta zapaltzen dituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen.
- Sistema honek sexuen arabera lan banaketa bultzatzen du, eta ezkututzen eta gutxiesten ditu bai feminizatutako ogibideak, bai bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutako lanak (hazkuntza, heziketa, biziraupenerako nekazaritza, mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta, elkartasun sareak, euskarri afektiboak...).
- Sistema honek ez ditu emakumeen enpleguak modu berean baloratzen, eta horren ondorioz besteak beste, Hego Euskal Herrian emakumeek gizonek baino 7.500 euro gutxiago irabazten dituzte urtean, joera hau areagotzen doalarik urtez urte. Lanaldi partzialeko eta behin behineko kontratuetan emakumeak gehiengo dira: lanaldi partzialen %76,3 emakumeei dagokie, eta emakumeen %27,6k aldi baterako kontratuak dituzte gaur egun Hego Euskal Herrian. Era berean, feminizatutako lanbideak (%59 zerbitzuen sektorean)

prekarizatuenak dira. Sistema honek emakumeen burujabetasun ekonomikoa oztopatzen jarraitzen du, bigarren mailako soldatekin zigortzen gaituzten aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuen bidez.

- Emakumeen lan prekarietateari eta autonomia ekonomiko faltari, nagusiki emakumeengan geratzen den zaintza lanei zor zaien aitortza falta eranstean zaio.
- Egiturazko desberdintasun sistematikoaz zipriztinduriko testuinguru horretan, hainbat indarkeria moldek (sexista, arrazista eta klasista) zeharkatzen gaituzte, haien artean elkar gurutzatu eta behin eta berriz errepikatzen dira. Ez dago hilketa, sexu eraso edo jazarpenik gabeko egunik. 2017 urtean 7 emakume euskal herritar izan ziren erahilak adinez txikiko birekin batera, indarkeria matxistaren biktimak guztiak. Gainera, Hego Euskal Herrian bi eguneko salaketa bat aurkezten da eraso sexuala dela eta, eta honek, 2017 urteari dagokionean aurrekoarekiko %36ko igoera izan dela uzten du agerian.
- Datu hauek ez dira besterik gabe ematen, sistema patriarkal baten ondorio dira, non besteren artean, hedabideek emakumezkoen irudiak baliatzen dituzten sexu objektu gisara, eta estereotipo sexistak sistematikoki barreiatzen dituzten. Eta bitartean, eskoletan hezkuntza sistema patriarkala eta androzentrikoa nagusitzen da, emakumeen ekarpen historikoak alboratzen dituen, merkatuko premietara zuzendutako gaiak eta edukiak hobesten dituen, eta genero rola auzitan jarri ez eta errotzen dituen.
- Gainera, inposatu zaigun hazkunde eta kontsumo eredu, emakumeentzat bereziki injustua izateaz gainera, aitortzarik eta baliorik ez duen ugalketa eta zaintza lanen zama handiena beraien bizkar utziz, ondare naturalen ustiaketa dakar berekin, bai eta etorriko diren belaunaldietarako bizitza sostengarri eta duina baldintzatzea.
- Bazterkeria errealitate orokor honen aurrean, nabarmendu nahi ditugu bazterkeria eta berdintasun falta bereziki sufritzen duten euskal emakume horiek: etxeko langileak; emakume zaintzaileak eta batez ere etorkinak; emakume pentsionistak (duintasunetik behera geratzen diren errentak eskuratuz askotan, eta gizonen baino %50 apalagoak diren errentak eskuratuz); ostalaritza edo merkataritza moduko zerbitzuetan lan egiten duten langileak, bereziki prekarizatutako gremioak biak; aniztasun funtzionala duten emakumeak, preso dauden emakumeak, prekarietatera bultzatuak izaten ari diren emakume gazteak; bisexual, trans eta sexu, genero zein beste disidentzietakoak... Datuek agerian uzten dute, Euskal Herrian pobretzatzea kronifikatzen ari dela emakumeen artean.

Honen aurrean **ASTEASUKO UDALAK**

Bat egiten du mugimendu feministak eta gehiengo sindikalak Martxoaren 8 rako deitutako greba deialdiarekin hainbat esparrutan: lan esparruan, ikasleena, zaintzarena eta kontsumoena, eta antolatuta eta deituta dauden mobilizazioetan aktiboki parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrak.

ASTEASU BATUZ

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Elicegui, , Usandizaga)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 1 (Uribe-Etxebarria)

Alkate andreak hitza hartu du: Uribe-Etxebarria jaunari galdetu dio ea ez dagoen ados emakumeen mugimenduarekin.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: jakina ados dagoela horrekin; hala ere, ez dio zentzurik ikusten greba egun horri, izan ere, oso hedatuta baitago sensibilizazio hori; nahiago ditu mugimendu hori defendatzeko egin beharreko lanak eta bilerak; martxoaren 8an deitutako paroak egingo ditu.

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

BOSGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Ayerza jaunak hitza hartu du. Gizarte Zerbitzuetako informazio-batzordeekin ematen ari den egoeraren berri eman du. Azkeneko bolaran arazo asko ematen ari dira batzorde horrekin, izan ere, oso zaila izaten ari da batzorde horren presidente andrea den Izaskun Etxeberriaren partaidetzarekin kontaktzea. Besteren artean, urtarrilaren 15ean eginiko batzordean adostu zuten beste bat egitea urtarrilaren 29an, eta Etxebarria andrea ez zen azaldu. Horri lotuta, gizarte langileak adierazi du lan asko duela batzordeko presidente andrearekin hitz egiteko, eta oso zaila izaten dela berarekin kontaktzea. Denok dakigu zein den Etxebarria andrearen egoera pertsonala, eta ulertzekoa da bere partaidetzarekin ez kontatu ahal izatea. Hala eta guztiz ere, bere proposamena da batetik, Uribe-Etxebarria jauna batzorde horretako presidente izendatzea eta, bestetik, hori posible ez bada, Asteasu Batuz udal taldeak jasoko luke ardura hori.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du. Aitortu du EAJ/PNV udal taldea ez dagoela dagokion ardura era egokian hartzen, denok ezagutzen baitugu Etxebarria andreak duen egoera pertsonala. Soluzio bat eman behar zaiola adierazi du, eta agindu du gaurtik aste batera, gutxi gora behera, soluzio bat proposatuko duela.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 20.16 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2018ko martxoaren 5ean.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea